Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

916

EBAZPENA, 2010eko urriaren 27koa, Garapen Lankidetzarako zuzendariarena, proiektu batean jardun behar zuen Claudia María Aguirre Arocena lankide boluntarioak diru-laguntzaren zati bati uko egiteko aurkeztutako eskabidea onartzen duena. Proiektu hori EAEko Unesco Etxea-Centro Unesco entitateak aurkeztu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko lankide boluntarioei bekak emateko, Nazio Batuetako nazioarteko erakundeei eta erakundeokin elkartutako pertsona juridikoei laguntzak emateko deialdiaren barruan.

Garapen Lankidetzarako zuzendariaren 2009ko urriaren 23ko Ebazpenaren bidez, Nazio Batuen nazioarteko erakundeentzako eta erakundeokin elkarturiko pertsona juridikoentzako laguntzak onartu ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko lankide boluntarioei bekak emateko. Laguntza horietako bat, 15.933,24 eurokoa, EAEko Unesco Etxea-Centro Unesco entitateari eman zitzaion. Laguntza horrekin, Claudia María Aguirre Arocena lankide boluntarioari beka eman zitzaion, entitateak Indian zeukan proiektu batean parte hartzeko.

Bekadunak, hala ere, 2010eko otsailaren 4an, diru-laguntzaren zati bati uko egiteko eskabidea igorri zion Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari.

Lankide boluntarioa ez da egun bakar batez ere baliatu emandako bekaz, eta beraz, 15.483,24 euroko zenbatekoari uko egin dio. Erakunde onuradunak 9.109,94 euro itzuli beharko ditu (eta ez da egingo diru-laguntzaren bigarren ordainketa).

Azaldutako guztiagatik, entitate onuradunak eskatutako aldaketak onartzearen aldeko txostena egin du Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak. Beraz, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Proiektu batean jardun behar zuen Claudia María Aguirre Arocena lankide boluntarioak diru-laguntzaren zati bati uko egiteko aurkeztutako eskabidea onartzea. Proiektu hori EAEko Unesco Etxea-Centro Unesco entitateak aurkeztu zuen, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko lankide boluntarioei bekak emateko, Nazio Batuetako nazioarteko erakundeei eta erakundeokin elkartutako pertsona juridikoei laguntzak emateko deialdiaren barruan 15.483,24 euroko zenbatekoari uko egiten zaio, eta

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

916

RESOLUCIÓN de 27 de octubre de 2010, de la Directora de Cooperación al Desarrollo, por la que se aprueba la solicitud de renuncia parcial de la cooperante Claudia María Aguirre Arocena que debía desarrollar su actividad en el proyecto presentado por la entidad Unesco Etxea-Centro Unesco del País Vasco dentro de la convocatoria de ayudas a Organismos Internacionales de Naciones Unidas y a personas jurídicas vinculadas a los mismos, para becar a las personas cooperantes voluntarias de la Comunidad Autónoma Vasca.

De conformidad con lo establecido en la Resolución de 23 de octubre de 2009, de la Directora de Cooperación al Desarrollo, por la que se conceden ayudas a Organismos Internacionales de Naciones Unidas y a personas jurídicas vinculadas a los mismos, para becar a las personas cooperantes voluntarias de la Comunidad Autónoma Vasca fue concedida a la entidad Unesco Etxea-Centro Unesco del País Vasco una ayuda de 15.933,24 euros destinada a becar a la cooperante voluntaria Claudia María Aguirre Arocena para su participación en un proyecto que la entidad realizaba en India.

Con fecha 4 de febrero de 2010, fue remitida a esta Dirección de Cooperación al Desarrollo la solicitud de renuncia parcial a la beca.

Dado que la cooperante no ha llegado a disfrutar ningún solo día de la beca concedida, la renuncia asciende a la cantidad de 15.483,24 euros, por lo que la entidad beneficiaria deberá devolver 9.109,94 euros y no se procederá al abono del 2.º pago.

Por todo lo expuesto, la Dirección de Cooperación al Desarrollo informa favorablemente a los cambios solicitados por la entidad beneficiaria de la subvención, en vista de lo cual,

RESUELVO:

Primero.– Aceptar la renuncia parcial de la cooperante Claudia María Aguirre Arocena que debía desarrollar su actividad en el proyecto presentado por la entidad Unesco Etxea-Centro Unesco del País Vasco dentro de la convocatoria de ayudas a Organismos Internacionales de Naciones Unidas y a personas jurídicas vinculadas a los mismos, para becar a las personas cooperantes voluntarias de la Comunidad Autónoma Vasca. La renuncia asciende a la cantidad de 15.483,24 euros, por lo que la entidad beneficiaria

beraz, erakunde onuradunak 9.109,94 euro itzuli beharko ditu (eta ez da egingo laguntzaren bigarren ordainketa).

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Gizarte Gaietako sailburuordeari, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urriaren 27a.

Garapen Lankidetzarako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.

tiene que devolver 9.109,94 euros y no se realizará el 2.º pago de la subvención.

Segundo.– Contra la presente Resolución, se podrá interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Asuntos Sociales en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de octubre de 2010.

La Directora de Cooperación al Desarrollo,
MARTA ARES GODOY.